

**BILKURA DATUAK**

EGUNA: 2014/09/16	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00:00 - 18:50:00	

**BILDUTAKOAK:**

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)  
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)  
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)  
Josu Pereda Leceta (BILDU)  
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)  
Omer Arregi Biain (BILDU)  
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)  
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)  
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)  
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)  
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)  
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)  
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)  
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)  
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)  
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)  
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)  
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN** Francisco Garcia Raya (PSE-EE)  
**UDALKIDEAK:** Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

**BERTARATZE**  
**ETA IRTEERAK:**

Behin bilkura hasita, idazkaria 2. puntuari dagokion diktamena irakurtzen ari zela, 2. Puntuari zegokion bozketaren aurretik, Ander Rodriguez Lejarza bertaratu da.

**I. AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

2014ko uztailaren 22ko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

**2.- GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA; UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEARI BURUZ LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA. (2014ZZER0132)**

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (aurrerantzean GGLA) idatzia eta lankidetzaren hitzarmenaren agiria aurkeztu ditu, sinatzeko proposaturik, eta haren xedea da MUGI kolektiboen txartelen eskatzaileek Gipuzkoako herriren batean erroldatuta egon beharri buruz datu pertsonalak GGLAk erabili ahal izateko baldintzak ezartzea, bai eta GGLAk izan behar duen konfidentzialtasun esparruan ere.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena egin dute, eta hauxe azaldu dute txostenean:

- a) Hitzarmen hau sinatuz gero, MUGI txartelaren eskatzaileei samurtu egiten zaie txartel horren tramitazioa, ez daukate-eta zertan aurkeztu errolda agiria.
- b) Hitzarmenaren indarraldia izango da urtebetekoa eta berriztagarria, bukatu baino hilabete bat lehenago aldeetako batek jakinarazten ez badu, eta indarraldiaren gehienezko epea, luzapenak barne, hamar urtekoa izango da.
- c) GGLAk aurkeztutako agirietan agertu bezala, errolda egiaztatzekeo tramitea " Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte-Sociedad Foral de Servicios Informáticos" enpresaren bidez kudeatuk litzateke.
- d) GGLAk erroldako datuak lortzeko, eskatzaile erabiltzaile bakoitzak onartu beharko duela, bai eta MUGI txartelaren oraingo onuradunek ere onartu beharko dutela. Gainera, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak konpromisoa hartzen du lortzen duen

informazio osoaren konfidentziasuna zaintzeko behar diren neurri teknikoak eta antolaketa neurriak hartzeko, bereziki izaera pertsonalekoak.

- e) Proposatutako Hitzarmenean jasota datozen betebeharretakoren bat bete ezean, batak besteari ahalmena ematen dio zuzenbide osoz eta berehala erabakitzeko.
- f) Azaldutakoarekin bat, Udaleko Zerbitzu Teknikoek ez dute ikusten arazorik GGLAk proposatutako hitzarmena sinatzeko.

Aurrekoa aztertu eta gero, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak hauxe proposatu du:

1.- MUGI txartelen kudeaketan Udal Erroldako datuak lortzeko, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak proposatutako hitzarmena sinatzearena onartzea.

2.- Ahalmena ematea alkateari edo alkateordeari, dagokion administrazio kontratua sinatzeko.”

### **3.- SUBASTA DE LOCALES DE ZERRAJERA Y UARCAPE; RENUNCIA A ADJUDICACION DE LOCAL N° 10 (TXAETA KALEA, 1), PRESENTADA POR TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVÁ. (2012HENK0001)**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprueba y eleva a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Urbanismo:

“En sesión celebrada en fecha 3 de junio de 2014, el Ayuntamiento Pleno resolvió el procedimiento de subasta de locales de Zerrajera y Uarkape, adoptando, entre otros, el acuerdo de adjudicar a la asociación religiosa TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVÁ la enajenación del local nº 10 (ubicado en Txaeta Kalea, 1), por el precio de 120.000 € y de conformidad con lo establecido en el Pliego de Condiciones Administrativas Particulares que rigen dicha subasta.

Por la asociación religiosa TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVÁ se ha presentado, con fecha 1 de septiembre de 2014, un escrito mediante el cual pone en conocimiento del Ayuntamiento su renuncia a la adjudicación del citado local nº 10, sito en Txaeta Kalea 1, y solicita la devolución de la cantidad de 3.530,34 €, que fue constituida como garantía provisional para poder concurrir a la subasta.

A la vista de lo anterior y teniendo en cuenta lo siguiente:

1.- El Pliego de Condiciones Administrativas Particulares que rigen la subasta de referencia, en su apartado 5 “*Garantía Provisional*” establece que:

*“La garantía provisional responderá del mantenimiento de las proposiciones presentadas por los licitadores hasta la adjudicación definitiva, **siendo incautada** a los licitadores que retiren injustificadamente su proposición antes de la adjudicación, así como **al adjudicatario provisional cuando, por causas imputables a él, el contrato no pueda formalizarse en plazo, supuestos en los que se procederá a su ejecución.**”*

2.- Conforme a dicha estipulación, la renuncia formulada conlleva la pérdida (incautación) de la fianza provisional constituida para concurrir a la subasta.

Esta Comisión de Urbanismo propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente acuerdo:

**I.-** Tener por formulada la renuncia de la asociación religiosa TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVÁ, adjudicataria de la enajenación del local nº 10, ubicado en Txeta Kalea 1, que ha sido comunicada al Ayuntamiento mediante escrito presentado por dicha asociación en fecha 1 de septiembre de 2014.

**II.-** Advertir a la asociación religiosa TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVÁ que, conforme a lo estipulado en el apartado 5 “*Garantía Provisional*” del Pliego de Condiciones Administrativas Particulares que rigen el procedimiento de subasta del citado local, la renuncia a la adjudicación de la enajenación del mismo conlleva la pérdida (incautación) de la fianza provisional que por importe de 3.530,34 € fue constituida por la asociación para poder concurrir en la subasta.”

**4.- “TAKOLO ETA GOIRU ARTEAN LEHENGO GI - 2620 ERREPIDEAREN ZEHARBIDEA BERRIRO ERE URBANIZATZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA” AURKEZTU ETA ONTZAT EMATEA. (2013HURB0001)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“TAKOLO ETA GOIRU ARTEAN LEHENGO GI - 2620 ERREPIDEAREN ZEHARBIDEA BERRIRO ERE URBANIZATZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA” aurkeztu da, Arrasateko Udalak sustatutakoa eta "ASMATU, S.L.P." enpresaren teknikariek idatzitakoa.

Exekuzio Proiektu horrek, 2013ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak proiektu horren Antolamendu agiria behin betikoz ontzat emanez hartutako akordioan adierazitako xehetasunak jasotzen ditu.

Aurreikusten diren urbanizatze lanak 9 faseetan burutzea planteatzen du Proiektuak:

- A FASEA: Goiritik Garaiaiko glorietarainoko GI-2620 errepedearen lotunea.
- B FASEA: Garaia esparruari dagokion glorieta berria.
- C FASEA: Jokin Zaitegi ikastetxeke aurreko zatia.

- D FASEA: Uribe auzoa eta Erguin auzoaren arteko eremua.
- E FASEA: Uribarri etorbideko 1-7 zenbakien ingurua.
- F FASEA: Arrasate pasealekuaren beheko aldea, ertzetako bi glorietak barne.
- G FASEA: Alfontso VIII. kalea - Gipuzkoako Foruen eta Cordoba y Oro plazan arteko zatia.
- H FASEA: Alfontso VIII. kalea – Cordoba y Oro plaza eta Azeri kalearen arteko zatia.
- I FASEA: Alfontso VIII. kalea – Azeri kalea eta Takoloko glorietaren arteko zatia.

Lanen exekuzio materialeko aurrekontua, guztira, 3.880.074,74 €koa da eta kontratakoa (%21eko BEZa barne) 5.817.078,59 €koa.

Agiria aztertu ondoren, hauxe proposatu du Hirigintza batzordeak:

**I.-** “TAKOLO ETA GOIRU ARTEAN LEHENGO GI - 2620 ERREPIDEAREN ZEHARBIDEA BERRIRO ERE URBANIZATZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA” ontzat ematea.

**II.-** Proiektuak aurreikusten dituen lanak faseka gauzatuko direla adieraztea, Udalak finkatzen dituen lehentasunen eta ekitaldi bakoitzerako Udal Aurrekontuetan onartzen duenaren arabera.

### **JUAN CARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Gure taldeak eta nik hirigintzan makina bat bider planteatu dugu zeren proiektu honi buruz eta beti zalantzan eta arduratuta ikusi dut, Arrasate pasealekuko peatonalizazio hori ba martxan botatzea, o sea, eta obretan, ia aprobetxau obrak mozteko hori estudixu aurretik estudixu bat egin barik.

Hor ikusten da nahiko arazo suertatuko diezela, alde batetik luzatu egingo dauelako ruta guztiak erabilera danak egunero kalkuletan dou igual bi mila hiru mila gutxienez erabile ibiliko diezela egunero eta hori moztuz gero edukiko dugu arazo handia, alde batetik, ruta luzatu egingo delako eta irteera bat hartzeko beste olandixu tuneleko zera eta beste alde batetik nahiko arazo sortu leikenez arrasateko puntu batzuetan.

Horregatik, atzera be eskatzen dugu estudio bat eta ez sei hilabete luze joango diezen obretan hori moztuta edukitzea ezta? Horren alde batetik hori derrigorrezko hori egitea eguneroko erabilerarako nahiko gogorra ikusten dugu eta errespetu falta ere bai. Horregatik eskatzen dugu estudio bat egitea babesteko peatonalizazio hori eta obrak be eruateko behintzat ahal dan dana ebagi barik ahal dan parteka egin eta behintzat trafikoa zeharo gelditu barik edo ebagi barik. Eta horregatik gu jarraitzen badu dauenez gure taldea gu abstenitu egingo gara.

**JOXE ETXEBARRIA (ARALAR):**

Arratsaldeon. Hemen bi gauza bereizi behar direla uste dut bata da hemen proposatzen dana ez da fase zehatz bat egitea baizik eta proiektu osoa onartzea eta gero etorriko litzake fase bat edo beste bat edo fase bakoitza nola ebatu behar dan erabakitzea.

Hori esanda, baita ere argitu behar da momentuz behintzat ez dela planteatzen peatonalizatzerik baizik eta tramo baten aukera hori ematen duen irtenbide bat dago baino hasieratik ez da peatonalizatzea tramo baten ere planteatzen, baizik eta aukera bat bakarrik.

Hori esanda, kontuan eduki behar dugu zuek polemikoa ikusten duzuen zati hori ebatzen denean hori egitea erabakitzen denean obra guztietan egiten dan bezala ba ez dela izkina batetik bestera apurtuko baizik eta zati bakoitzak bere puxkak izaten ditu eta puxka hoiek proiektuaren arabera erabakitzen dira noiz moztu eta nola moztu erabiltzaileari ahalik eta kalte txikiena egiteko.

Bestalde esan behar da denok kontziente garela eta proiektu hau ikusi zanean eta ez zati horrek bakarrik beste batzuk ere ba eragin handia edukiko duela inguru hoietako bizilagunentzat, inguru horretako bizilagunentzat esan nahi dut hor gaur egun badago jendea hor bizi ez dena eta bide hori erabiltzen duena eta garbi esan behar da oraindik Kanpantzaritik behera Epeletik joan beharrean Muxibarretik sartzen dela jendea eta hortik egiten duela tramo hori, saihe bide osoa ahalbideratuta edukita bai Epelekoak, kanpantzarrekoak epelekoak bai Arrasateko saihe bide osoa bai eta baita Olandixoko tunela.

Hortik aparte esan behar da Arrasaten egin direla estilo hortako obrak eta azkena izan da San Isidroko edo Musakolako zubia eta hor ere hasieran ikusten zan sekulako eragina izango zuela eta buruko min batzuk, jendea ohitu zan eta bidea ikasi zuen gaur egunean gainera beharbada gustorago duena eta baita ere orain dela urte batzuk Garibaitik ekin zitzaionean herria itxita egon zan eta herritarrak neurri baten holako obra bat egiten danean derrigor gutxiago edo gehiago derrigor sufritzen dute, dena den kotxearen erabilera eta zirkuitoak zeintzuk izango diren poliki-poliki bideratzen joango garen zerbait da eta obra hori ekiten zaionean ez da autopista bat bezala erabiltzeko baizik eta kotxeak ahalik eta gehien bide hortatik kentzeko.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?

**JUAN CARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Nik hala bada, ahal den eta kalte gutxien egiten baldin bada obra horrek egiterakoan erabiltzaile horrei hori hala bada orduan aurrera jarraitukou eta edukiko dugu denbora hori jarraiketako baina hoin artean hirigintzan entzun dotena izan da obra epe horretan dena itxita geldituko zala eta itxita gelditzekotan ia hori derrigorrezko gauza bat da eta derrigorrezko gauzak ez dira izaten normalki ondo irtetzen ezta? Horregatik izaten baldin bada kalte gutxien eta dana kontrolauta erabilerak jarraiketako parte hori aritzen guk onartuko dugu.

**INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria):**

Juan Karlos bakarrik gogoratzea gaur onartzen duguna da proiektua osotasunean eta nik uste galdera bat dagoela hor proiektuarekin ados zauze edo ez zauze? gero faseka egiten denean proiektu hori hor eskatu leike enredro gutxiago sortzea herritarrei eta eskatu leike gauza asko baina nik uste dut hemen ez dakit zalantzan jartzen duzuen da proiektu bera eta proiektu bera aztertu danean hirigintzan ez duzue jarri inolako pega, proiektua osotasunean.

**JUAN CARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Nahi dut argitzea proiektu bera urbanizazio horrek hor sartzen diezen zer guztiak, bidegorriak eta abar eta beste zer guztietan abantaila asko daukala horregatik orokorrean ondo ikusten dugu baina parte arduratsuen da peatonalizazio hori tramo horretan Foruen plaza eta Udala plaza arteko hori da eta hor bat baino gehiago hirigintzan komentau dugu hori lotzen dauela bi auzo, alde batetik, Erguin eta goiko parte hori dana Zarugalde eta hori dana eta beste auzo potenteak gainera dentsitate altukoak San Andres eta hori dana. Hori ebagitzea horregatik eskatzen dugu estudio bat egitea ze inpaktu bai zirkulazio eta bai ingurumen aldetik horrek ekarriko diguna eta estudio hori ikusten dut falta dauela. Horregatik oraindik badago ondiokan denbora itxeko eta behintzat ahal den eta kalte gutxien eitzeko. Hori da nik nahi dutena argitzea

**JOXE ETXEBARRIA (ARALAR):**

Momentuz hitz egin duguna hirigintzan da hurrengo fasean erabakiko dala eta zuek gainera aste hontako batzordera joango da. Inoiz ez dugu ,eta hori aktetan begiratu, ez dugu esan obrak hasten deneko zati horrek beste zatiak suposatzen duena punta batetik bestera itxi batera behar denik hori ez dugu inoiz esan eta normalean horrelako obra bat egiten danean ikusten da kalterik txikiena egiteko bidea eta nik uste prozedura beti bezala jarraituko dala

**5.- ALKATEAK ZUZENEAN AUKERATZEARI BURUZ, ARRASATEKO BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.(2014SMOZ0018)**

Idazkariak Bildu eta Aralar udal taldeek aurkeztutako mozioa irakurri du:

Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskunde aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzieroen gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inposatu dituzten murrizketen gauzapearen bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakatuz. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Ereku publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren entresak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredu, berez ahula izanik ere, errotik okerrera aldatu nahi izan da Madrilgo Gobernutik.

Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiek, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorrigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin ba da ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatuenerako zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritziari kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrikapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkateza eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herritarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeko aukera izateko. Gure udaletan demokraziari atak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, Arrasateko Udalak, honako puntu hauek onartzen ditu:

1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen gainetik, PPren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoei sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebakarreko aldaketa errefusatzen du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitaten borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeko eskubidea aldarrikatu nahi du.



3.- Udal honek, bere jardueran herritarren partehartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ezezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.

**ARITZ ARRIETA (PSE-EE):**

Arratsaldeon. Nosotros nos vamos a abstener básicamente porque compartimos el 99.9% de lo que se dice en la moción y básicamente además porque tenemos otra moción que es igual representaríamos el absurdo de votar a favor de dos mociones prácticamente idénticas. Yo creo que los dos grupos hemos cometido el error de no habernos consultado antes a pesar de que la nuestra se presentó un poco antes que la vuestra. Entonces ha sido un error táctico político y nos vamos a abstener.

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Arratsaldeon. Gu ere zuk esaten duzunaren haritik zuen mozioaren abstenitu egingo gara eta ez dugu koordinaziorik eduki zergatik uste dugu oinarrian ados gauzela. Hiru gauza bakarrik esan autonomiaren murrizketa zuzena dela lege hau danok dakigu PPK inorekin adostu gabe bere gehiengo absolutua erabilita zelan egiten ari dan politika beste lege batzuekin ikusi dan egin dutena da zuzenean aplikatu beraien iritziak inorekin kontseatuatu barik ez madrilen bakarrik. Oker ez baldin nabil Zapateroren gobernu sozialistak hauteskunde legearen aldaketa proposatu zuenean PPK aurka egin zion eta orain hor udal legearen aldaketa zehatza egitera argi dago eta danok dakigu maila honetan zergatik egiten diren ezta? Datorren urtean egongo diren udal hauteskundeetan interesa dauka hiri eta herrietan euren partidua irtetzeko irabazle eta alkatetzak mantentzeko helburua da helburuetariko bat. Argi dago oportunismo hutsa dala espero dugu lege hau aurrera ez ateratzea eta gu ados gaude hauteskundearen legearen aldaketa baina aldaketa oinarritzko baten non herritarrak eduki dezaten beren ordezkariak aukeratzeko ahalik eta askatasun gehien eta herritarren nahia eta borondatea erreflejatzen dan ahalik eta hobeen hauteskundearen legearekin baina ez gehiengo absolutueetatik datozen azkenean interferentziatik.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Guk ere ikusi dugu mozio biak bai sozialistak aurkeztu dauena eta bai Bildu Aralarrek aurkeztu dauena onartzekoak direla eta guk beste bat atera ordez atzera arteko ginuan onartuko dugu bozketan dana eta aurrera.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bozketara pasatuko gara

Bozketaren emaitza: **Mozioa ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	16	BILDU (11), ARALAR (1) EAJ-PNV (4)
Aurkako botuak:	0	
Abstentzioak	3	PSE-EE (3)

**6.- MOCION QUE PRESENTA EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA SOBRE LA MODIFICACION DE LA LOREG QUE PROPONE EL GOBIERNO DE ESPAÑA PARA ELEGIR DIRECTAMENTE A LOS ALCALDES Y ALCALDESAS. (2014SMOZ0017)**

La secretaría ha leído la moción presentada por el grupo municipal PSE-EE:

El partido que está al frente del Gobierno de España, el PP, ha avanzado estos días la intención de realizar una Reforma de la Ley Electoral en el ámbito municipal, aunque no cuente con el apoyo de otros grupos políticos con representación en el Congreso de los Diputados.

En estos momentos, cuando quedan nueve meses para las próximas elecciones municipales, esta reforma electoral se plantea por parte del Gobierno del PP de forma oportunista y parcial, por un interés claramente electoral. La estrategia del PP consiste en lanzar un globo sonda, decir que están abiertos al diálogo y acusar al resto de fuerzas políticas de no querer alcanzar acuerdos. Entendemos que la política es diálogo, negociación y acuerdo, pero también es cumplir las reglas de las que nos hemos dotado democráticamente y no modificarlas en base a intereses partidistas. El Gobierno del PP no puede cambiar las reglas de juego minutos antes de empezar el partido.

Por esta razón debe de explicar por qué tiene tanta prisa en modificar la Reforma Electoral en lo que afecta al régimen municipal.

Todo parece indicar que el miedo a perder Alcaldías es el motivo que impulsa la reforma que propone el Gobierno de Rajoy. Esta propuesta no es una demanda social, ni política; únicamente responde a la petición de los alcaldes del PP que quieren mantenerse en el poder alterando mayorías democráticas. Porque lo que se plantea como una forma de respetar la voluntad mayoritaria de los vecinos a la hora de elegir alcalde supone, en realidad, conceder al partido más votado una mayoría que no le han otorgado las urnas. Nos hemos dotado de un sistema electoral

proporcional para dar voz a las minorías y para que éstas, agrupadas y desde el acuerdo político, puedan convertirse también en mayoría, de una manera absolutamente legítima.

Los cambios de sistema electoral deben llevarse a cabo con consenso, diálogo y a través del pacto, justo al contrario de lo que pretende ahora el PP.

En definitiva, no se pueden plantear cambios sobre la elección de los alcaldes y el régimen municipal modificando urgentemente la LOREG, sin acuerdo y a pocos meses de las elecciones locales.

El Gobierno de Rajoy sigue empeñado en atacar sistemáticamente la autonomía local. Primero anunció a bombo y platillo su reforma local, aprobando la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la administración local, que vacía de capacidad política y de competencias a los Ayuntamientos y aleja a los ciudadanos y vecinos de las entidades locales por el desmantelamiento que se está produciendo de los servicios públicos que los municipios prestaban. Después el Gobierno anunció la propuesta de Ley de demarcación y Planta judicial, que está encima de la mesa del Ministro de Justicia, que desvitaliza la actividad judicial de los ayuntamientos que han sido cabezas de partido judicial. Y ahora el PP amenaza nuevamente la democracia municipal planteando una reforma electoral de forma unilateral para favorecer únicamente sus intereses políticos y electorales.

Por todo ello, el Grupo Municipal Socialista presenta la siguiente

#### MOCION

El Ayuntamiento-Pleno muestra su rechazo a la modificación de la LOREG que propone el Gobierno del Partido Popular en el ámbito municipal, a menos de 9 meses para la celebración de las elecciones municipales y sin el consenso de la mayoría de las fuerzas políticas con representación en el Congreso de los Diputados.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Presidente):** Pasaremos a la votación

Bozketaren emaitza: Mozioa **ONARTUA izan da.**

<b>Bertaratutakoak</b>	<b>19</b>	
<b>Aldeko botuak:</b>	<b>7</b>	<b>EAJ-PNV (4) y PSE-EE (3)</b>
<b>Aurkako botuak:</b>	<b>0</b>	
<b>Abstentzioak</b>	<b>12</b>	<b>BILDU (11) y ARALAR (1)</b>

**7.- KUTXABANKEN INGURUAN BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA. (2014SMOZ0019)**

Idazkariak Bildu eta Aralar udal taldeek aurkeztutako mozioa irakurri du.

Ia 150 urte inguru pasatu dira Donostiako (Bilbo, Gasteiz...) Udalak eta Gipuzkoako (Araba, Bizkaia...) Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zalantzarik ez dago, eta historiari erreparatu txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzio publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.

Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzio publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea. Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziarioa bermatu, udalen finantziario eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi balitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kutxek urteetan helburu.

Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategiteak sortu den Kutxabanken ildo ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzio publiko eta soziala betetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi balitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den pribatizazioaren bideari atak ireki dakizkioke, aipaturiko funtzio publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.

Historikoki bete duten funtzioetatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtzioetatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan bide berri bati ekitea eta hortxe kokatzen ditugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburuak. Horrexe diote hitzez hitz:

1. “Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.
3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.
4. Bertako ekonomia errealean mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:

- ✧ Bertako autonomoei, merkatariari, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziarioa bermatzea.
- ✧ Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea.
- ✧ Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jarduerekin amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.
- ✧ Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.
- ✧ Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea.”

Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko (Bizkaia eta Araban, banku-fundazio izateari uzteko) eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutzak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.

Hori guztia kontutan hartuta Arrasateko Udalak honoko erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Arrasateko Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.
- 2.-Arrasateko Udalak Kutzaren (GIPUZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.
- 3.- Norabide horretan, Arrasateko Udalak Kutzako (GIPUZKOAN) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.

#### **ARITZ ARRIETA (PSE-EE):**

Nosotros votaremos en contra de la moción básicamente porque se podía haber puesto en cuestión la fusión de las tres cajas de que en su momento porque una vez que cambia y se pasa a ser un banco la normativa que la regula también es distinta. Entendemos que pedirle que se revoque a una situación anterior según la normativa europea queda fuera de la ley y sería prácticamente nacionalizar un banco.

Como nosotros no podemos votar a favor de algo que va en contra de de la propia normativa europea y de la nacionalización de un banco.

En todo caso, se podría haber cuestionado la fusión en su momento de las cajas pero una vez que se ha hecho la fusión yo creo que ya poco cabe hacer para poder retornar a la situación anterior.

**IBON ARRUPE (EAJ-PNV):**

Ekainean gai honi buruz eztabaidatu genuen areto honetan eta orduan makina bat gauza baina bueno argi dago Gipuzkoak Foru Aldundiak eskatu dauen eskualdatze proposamen hau guztiz ilegala dala juridikok nundik kolpe bez ez dauka proposamen horrek orduan hori kontuan edukita guk kontra bozkatuko dugu.

Beste alde batetik banka fundazioa sortzeko prozesu honetan guk aurkeztu genuen emendakinean esan gauen moduan gardentasuna eta Gipuzkoako aniztasuna bermatuta gelditu beharko zan patronatu horretan eta horretarako prozesu bat dago irekita eta prozesu horretan ba gipuzkoako eragile danak parte hartu behar badute bai alderdi sozialistak, PPK, EAJK, CCOO, etab... baina Bilduk ez, bilduk ez dau hartu behar ez du parte hartzen hor ia sei batzar edo lan batzar burutu dituzte eta Bilduk ez dau baten be parte hartu eta hor ikusten da bere borondatea berez ez dala Gipuzkoako eragile, sentsibiltate eta aniztasuna errespetatzea baizik eta betiko bezala bere obsezioa eta bere horrek inposatzea orduan ba guk mozio honen kontra bozkatuko dugu.

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Aritzei erantzunda guk mozio honen efektibamente kontra egon ginen eta kutxabanken aktibidade finantzieroa hasi zauenean hartu zituen erabaki finantziero guztiak bai aldundiak eta bai udalak jorratutako irizpideen kontra joan ziren eta guk denbora guztian egon gara horren kontra eta orain ez dut errepikatuko ze jokaera edo azpijoko erabili ziren guk hor parte ez hartzeko eta gure iritzia kontuan ez hartzeko gehiengoa izanik hori zure interbentzioari dagokionez.

Ibonen interbentzioaren harira gustauko jaten jakitea non dauen ilegalitatea gure proposamenean eta gero patronatuaren inguruan patronatu hori badakigu zeintzuk behintzat Bizkaian eta Araban uste dut be bai badakigula zeintzuk parte hartu dabien patronatu horretan eta ekonomilari eta finantzieroak dienen heinean ba nahiko zailtasun handixa egongo da islatuta zein zan 1879an Gipuzkoako kutxak sortu zanean zeukan izaera, zala izaera soziala.

Guk eskatzen gauena eta gure proposamena legala da, da akzioen transmisioa udalek diputazioari eta Donostiako udalari, uste dugu Donostiako herrria eta udala eta diputazioa izan behar direla markatu behar dutenak zein izan behar diran entitatearen izaera eta non inbertitu behar dan gipuzkoarren dirua eta batez ere aurrezkiak orain arte izan dan bezala aldaketak egon dira bai 91an eta 2012an eta kaltetuta irten dena izan da izaera soziala eta azkenean herrira rebertitutako baliabideak eta horiek ez ditut esango zeintzuk diren...Gure udalean azkeneko aldiz esan nauen eta gure udalean hainbat departamentutan igarri da.

Gipuzkoako diputazioak ematen dauen aukera legala da eta da fundazio bat sortzea ez fundazio bankario bat, horretan transmisio hau ematen baldin bada fundazioak edukiko leuke %5a, diputazioak % 5 gutxi gorabehera, arrasateko udaletxeak barkatu donostiakoak edukiko leuke %5a eta udalak edukiko leuki %17a.

Modu honetan bakarrik garantizau leike esaten dotzueten bezala gipuzkoarren aurrezkiak berriz ere guregana rebertitzea esan dugunetan kredituak ematen enpresari txikiei, kooperatibistei, komertzianteei eta ez gaur egun ikusten dan bezala fundazio pribatu bat ez dauena desde luego herriaren eskuetan zein erabaki hartu behar diren eta zer egin behar dan diru horrekin.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Ez argitzeko bakarrik Maiderrren zera eta portzentai hori dohain ezta? Dohain.

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Erantzungotzut transmisioa nola egingo dan ondio ez dago definituta zergatik ondion ez da ikusi ze forma juridiko konkretu edukiko leukien. Transmisioa izan leike ,ez in barre Ibon ez dute ematen niri graziazirik.

Transmisioaren forma juridikoa ez dakigu izango dan dohakoia edo izango dan zerbaiten truke hori ez da konkretatu eta proposamenean ez da konkretatzen hori baina hori ez da, hori da debatea desbideratzea, debatea da egon behar dan udalek, Diputazioak eta Donostiako udalaren eskuetan edo egon behar den patronatu baten eskuetan zeinek bere bidea egon behar diren partidu politikoen aukeraketan menpean hori da debatea ia gure aurrezkiak nora joan behar diren eta Ibon berriz galdetzen dotzut non dauen proposamen horren ilegaltasuna

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Ilegaltasuna hor dau eskatzen dauela dohain izatea partizipazio horrek

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Proposamenean dohain izatea ez du inoiz jarri.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Hor idatzita ez baina diputazioan aurkezpena eta eskaera hori esanda

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Gaur goizeko azalpenean Garitanok ez du esan transmisioa nola izango dan edo dohaina edo ez , ez asmatu ze hori ez da hola.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Hala azaldu da behintzat

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Ez da azaldu hola, Garitano gaur goizean eman dauen prentsurrekoan argi geratu da transmisioaren forma juridikoa ez dakigula zein dan

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Ikusi leike haber bakoitzak Foru Aldundiak haber elkar adosten garen hori dena erosteko

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Hala be akzioen transmisio doakoa legala da

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Doakoa ez da.

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Legala da.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Hori ez da legala

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Noiz ez da legala? Zergatik ez da.



**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Hori ilusio bat da , hori fantasia bat da.

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Beitu nik nire etxea zuri dohain ematea fantasia izan leike baina juridikoki in leike ez da ilegala

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Horregatik fantasia bat, ilegala eta gainera

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Ez dala ilegala

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Ez dala ilegala haber ulertzen duzuen

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Goazen danok eskatzera proposamena

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):**

Juan Karlos hitz batekin esanda edo esaldi batekin esanda, azkenean da errekueratzea kutxaren benetako izaera, izaera publikoa eta gaur egun pribatizatzen ari da eta guk ez dugu nahi pribatizatzea

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Baina hori ez da,

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):**

Eta hori posible da eta eskualdaketa eskatzen da, eskualdaketa Kutxan juntan onartzen bada hori aukera legala da, hori aztertu da.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Ez baina hori da inpositorioa ez da hori udaletxeena, ez diputazioa ezta hori eta izateko hori hala erosi egin beharko genuen portzentai hori kutxako portzentai hori

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Igual transmisioa eman behar da erositako prezio egoki baten, ez dala hori gaia Juan Karlos debatea ez da zenbategatik erosi behar dan doakoa izan behar dan edo zenbat ordaindu behar dan, debatea da zeinen eskuetan egon behar dan Gipuzkoako kutxa hori da eta orduan guk oso argi daukagu zeinen eskuetan egon behar dan eta zuek ere bai.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Fundazioan dago

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Zuek oso argi daukazue zeinen eskuetan nahi duzuen edukitzea gipuzkoarron dirua eta uste dut desde luego herritar guztiak merezi duela hasieran sortu zaneke izaera hori mantentzea

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):**

Hori mantendu itxen da hasieran sortu dan zera mantendu itxen da sozialki eta guzti hori mantendu itxen da eta helburu hori mantendu itxen dira.

**MAIDER MORRAS (BILDU):**

Ez hemendik urte batzuetara datu gehiago emangotzuz

**INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria):**

Argudio berririk ez dauz azkenean gabitz ping-pongnean batek gauza bat esaten du eta besteak beste gauza bat orduan aurrera jarraitzen dugu. Bozketara pasatuko gara

Bozketaren emaitza: Mozioa **ONARTUA izan da.**

<b>Bertaratutakoak</b>	<b>19</b>	
<b>Aldeko botuak:</b>	<b>12</b>	<b>BILDU (11) eta ARALAR (1)</b>
<b>Aurkako botuak:</b>	<b>7</b>	<b>PSE-EE (3) eta EAJ-PNV (4)</b>
<b>Abstentzioak</b>	<b>0</b>	

**8.- GALDE-ESKEAK.**

**9.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA.**

Udal Plenoak Alkateak emandako ebazpenen berri hartu du, 2014ko uztailaren 18 eta irailaren 12 bitartekoak (eranskina).

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:50:00tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko irailaren 16a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Inazio Azkarragaurizar Larrea